



PEDALÓ

UNA PELÍCULA DE JUAN PALACIOS

CON ENEKO BELAUNZARAN, JON LOPEZ Y JOSEBA ETXEBERRIA
CO-PRODUCIDA POR LA PISCINA Y BOTIKA PRODUCCIONES
CÁMARA JUAN PALACIOS AYUDANTES DE PRODUCCIÓN LOHITZUNE SISTIAGA Y LOREA PALACIOS
MÚSICA ORIGINAL DE LAUKI, DØDE PETERS KLUB, SHAME SALVADOR Y FORZUDD
GUIÓN, PRODUCCIÓN, DIRECCIÓN Y MONTAJE JUAN PALACIOS



Kontua hasi zen Joseba Etxeberria nire lagun eta artistarekin duela urte batzuk metal basatia egiten zuen banda batekin konpartitzen genuen Legarreko entseguetarako lokal batean. Orduak ematen genituen inoiz abesti bilakatzen ez ziren soinu-testurekin nor bere gogoetan murgilduta. Entsegu haietako batean, Josebak bozeto batzuk erakutsi zizkidan. Laketontzien prototipoen 3D modelatuak ziren, "Etokizuneko hondartza" izeneko lehiaketa baterako diseinatzen ari zena. Gogoan daukat haietako batek erroskillara itxura zeukala. Erdiko zuloan mahai borobil bat zeukan eta mahaiaren erdian koko-palmondo bat ateratzen zitzaion. Tramankulu haietan apur baterako hondartzako jendetzatik urruntzeko aukera zegoen, kartetan aritu, lagunekin meriendatu, noraezean flotatu... Hark bazeukan ordurako itsasoko konkista modu baten itxura, igandeetako konfortetik abiatuta.

Eta garai hartan, Josebak edukitzen dituen ideia zoragarrien labekada horietako batean, bota zidan pedaloian bidaia egiteko ideia. Lurraldearen gorabehereri kasurik egin gabe irudizko lerro bat egin zuen Deba eta Santiago de Compostelaren artean. Erabakita zegoen, pedaloian egindako bidaia apostoliko bat izango zen eta ez zirudien axola zitzaionik Santiagok hondartzarik ez edukitzea. Baina, noski, esatetik egitera tartea dago, eta soinu-testura eta 3D prototipo haien antzera "pedaloi proiektua" ere ahaztu egin zitzaigun.

Urte batzuk igaro ziren. Ingurumen-zientzien ikasketak egin nituen eta Kopenhagera joan nintzen Ikus-entzunezko komunikazioko karrera amaitzera. Ikasketak amaitu ondorengo linbo arrotz horretan nengoela, zer egin ez nekiela, Josebak deitu zidan berriro ere gogoberotuta pedaloian bidaia bat egiteko kontuarekin. Hobeto pentsatuta zeukan oraingoan, ezagun zen; izan ere, kalkulatu berri zuen ibilbidea "zuhurragoa" zen: Hendaiatik Bilboko alde zaharrera. 150 kilometroko bidaia izango zen, eta ez zitzaion axola pedaloi bat ez izatea egokia euskal itsasbaterreko itsaso zakarrerako. Jon eta Enekorekin batera tripulazioko kide izan nahi nuen galdetu zidan, eta nik erantzun: "ez, ez, ez, ez, nik dokumental bat egingo dut".

Euskal kostaldetik pedaloian doazen hiru lagunen irudia burugabekeria iruditzen zitzaidan, baina era berean baita erakargarria ere. Nire barnean ere hots egiten zuen bizitzako behar esplikagaitz bati erantzungo balio bezala. Behar hori da filmaren bidez eratu nahi nuena.

Pelikula filmatzea esperientzia bizia eta gorabeheratsua izan zen. Hasieratik ugariak izan ziren istripu eta ezusteak, festak, ajeak, xaman bat, hileta bat... Une batzuetan erabateko absurdoa iruditzen zitzaidan nire udako oporrak ematea pedaloian zihoazen hiru lagunen atzetik. Hala ere, zerbaitek bultzatzen zituen lagunak pedalei eragitera eta ni grabatzen jarraitzera. Egunkari batean hartu nituen gertatzen zenaren gaineko oharrak.

Filmatzen amaitu eta ohar haiek berriz ere irakurri nituenean konturatu nintzen itsasoan flotatzen ari den pedaloi baten irudiaren oso bestelako karga emozionala zeukatela oharrok. Hala ere, nire kamerak erregistratu zuenaren eta benetan bizi izandakoaren arteko desfasean erakarri ninduen zerbait hunkigarria eta poetikoa aurkitu nuen. Ondorioz, erabaki nuen narrazio bat egitea, non hiru "marinel" horien balentria haluzinatua batera existitzen den tarte ezberdinetan kontaktzen ari denaren bizitza pertsonalarekin.

Pelikula hau egitea nire zinema-eskola partikularra izan da. Nik neuk ekoitzi, idatzi, zuzendu eta muntatu dut. Nireak dira argazkia, soinua, postprodukzioa eta baita soinu bandaren parte bat ere. Oso produkzio punka izan zen, oso *do it yourself*. Nahiko nuke esan sinesmen (a)politiko batengatik egin nuela horrela, bihurrikeria ekintza gisa, ekoizpen tradizionalaren sistemaren aurka egiteagatik. Baina ez, horrela egin nuen ez neukalako beste aukerarik. Nahiz eta batzuetan disimulatzen saiatu, PEDALÓ etxean egindako pelikula bat da, nire gelan egindakoa, ordenagailu eramangarri batez eta kafe asko hartuta. Eta eskertzekoa da; izan ere, "zuk zeuk egin" horren oztopo eta inperfekzio horiek guztietan datza istorio honen muina.

Duela gutxi, gonbitea jaso nuen zinema-ikasle batzuei autoprodukzioko nire prozeduraren inguruko masterclass bat emateko. Hor konturatu nintzen batzuentzat PEDALO adibide bat dela, gauza gutxirekin luzemetraia bat egitea posible dela erakusten duen adibidea. Baina baieztapen hori bi ahoko xafla da. Egin ahal da, baina ez dakit egin behar den. Egia da aurrekontu oso txikiarekin egin nuela, baina baldintza oso eskasetan. Crowdfunding kanpaina baten bitartez, lortu nuen filmazio-gastuak justu-justu ordaintzeko adina. Gero, dirurik ez neukanez, nire aisialdiko 4 urte erabili behar izan nituen filma bukatu ahal izateko. Eta hori, produkzio kapitalistaren ikuspuntutik, bakarrik ulertu ahal da zeure buruaren bekaduna baldin bazara. Ez al zen zaletasun garestiegia nire ametsetako lanbidea zen hura? Pelikula bat errekurtso gutxirekin egiteak meritua dauka, baina ez dakit ospatzeko modukoa den. Kultura arloko sortzaile askori gauza bera gertatuko zaielakoan nago. Neure buruari galdetzen diot nire modus operandiak ez ote duen elikatu, are gehiago, prekaritatearen sua.

Baina suaz ari garela, garaia da laztasun pertsonalak San Juan suan erretzeko. Hain zuzen Gaztelugatxeko San Juanen gertatzen den eszena batean gure xaman maiteak dioen bezala, "Ona barrura, txarra kanpora". Izan ere, azkenean honek guztiak saria izan zuen. Gure filma Donostiako Zinemaldian hautatua izateaz gain, Euskal Zinemari ematen zaion Irizar Saria ere eman ziguten. Hiru protagonistei eta neuri ere kostatu egiten zitzaigun sinestea jendeak bat egiten zuela oso gurea zen unibertso batekin. Hori zoragarria iruditu zitzaidan.

Filma estreinatuta zen gauean, proiektzioaren ondoren, ikusle batek galdetu zigun ea berriro ere egingo ote genukeen. Isilune arraroa sortu zen. Zera pentsatzen dut: bai pedaloiko hiru zoroen balentria haluzinatua, bai filma egiteko nire abentura, gaztetasunaren burugabekeria zoragarri baina errepikaezinen emaitza izan ziren. Eta uste dut lortu genuela ez genielako ezinezkoa zela.



La cosa comienza con mi amigo y artista Joseba Etxeberria en un local de ensayo de Legarre que compartíamos hace unos años con una banda de brutal metal. Solíamos pasar horas ensimismados con texturas sonoras que nunca se convertían en canción. En uno de esos ensayos Joseba me enseñó unos bocetos. Eran modelados 3D de prototipos de embarcaciones de recreo que había estado diseñando para un concurso que se hacía llamar "La Playa del Futuro". Recuerdo uno en particular que tenía forma de rosquilla. En el agujero central llevaba acoplada una mesa redonda y del centro de la mesa salía una palmera cocotera. En estos artefactos uno podía evadirse de la muchedumbre de la playa por un rato, jugar a las cartas, merendar con los amigos, flotar a la deriva... Aquello ya apuntaba hacia una especie de conquista del mar desde el confort dominguero.

Y es que fue en esa época, en esa hornada de magníficas ideas que Joseba suele tener, que me espetó la idea de hacer un viaje en pedaló. Haciendo caso omiso a las vicisitudes del territorio trazó una línea imaginaria entre Deba y Santiago de Compostela. Estaba decidido, sería una especie de viaje apostólico en pedaló y el hecho de que Santiago no tuviera playa no parecía importarle. Pero claro, del dicho al hecho hay un trecho y al igual que aquellas texturas sonoras y prototipos 3D, el "proyecto pedaló" también cayó en el olvido.

Pasaron algunos años. Me saqué la carrera de Ciencias Ambientales y me fui a acabar la de Comunicación Audiovisual a Copenhague. Me encontraba en ese limbo extraño después de acabar los estudios sin saber muy bien qué hacer cuando Joseba me llamó entusiasmado nuevamente con la idea de hacer un viaje en pedaló. Se notaba que lo había cavilado mejor pues esta vez la ruta que había calculado era mucho más "sensata". Esta vez iba desde Hendaia hasta el casco viejo de Bilbao. Serían 150 kilómetros de viaje y que un pedaló no estuviera hecho para la mar hostil del litoral vasco le traía sin cuidado. Me preguntó si quería formar parte de la tripulación junto a Jon y Eneko, a lo que contesté: "no, no, no, no, voy a hacer un documental".

La imagen de tres amigos viajando por la Costa Vasca en pedaló me parecía tan disparatada como fascinante. Como si respondiera a una necesidad vital difícil de explicar que resonaba también dentro de mí. Es esa necesidad la que pretendía articular a través de la película.

El rodaje fue una experiencia intensa y accidentada. Nada más comenzar se convirtió en un delirio de accidentes e imprevistos, fiestas, resacas, un chamán, un funeral... Por momentos el hecho de estar pasando mis vacaciones de verano siguiendo a tres amigos montados en un pedaló me parecía un absurdo total. No obstante, algo hacía que ellos siguieran pedaleando y que yo no dejara de grabar. A modo de diario tomé notas sobre lo acontecido.

Cuando acabé de rodar y volví a leer aquellas notas me di cuenta de que tenían una carga emocional muy opuesta a la imagen de un pedaló flotando en el mar. Sin embargo en ese desfase entre lo registrado con mi cámara y lo realmente vivido encontré algo patético y poético que me atrajo. En consecuencia decidí elaborar un relato en el que la hazaña alucinada de estos tres "marineros" coexiste en diferentes tiempos con la vida personal del que la cuenta.

Hacer esta película ha sido mi escuela de cine particular. La he producido, escrito, dirigido y montado yo mismo. También hice la fotografía, el sonido, la postproducción y hasta parte de la banda sonora. Fue una producción muy punk, muy *do it yourself*. Me gustaría decir que la hice de esta manera por una convicción (a)política, como acto de rebeldía, por ir en contra del sistema de producción tradicional. Pero no, la hice así porque no me quedaba otra.

Aunque a veces intente disimularlo, PEDALÓ es una película casera hecha en mi habitación con un ordenador portátil y muchas tazas de café. Y al final debo estar agradecido pues en todos esos obstáculos e imperfecciones del "hazlo tú mismo" es donde está el meollo de esta historia.

Hace poco me invitaron a dar una masterclass a estudiantes de cine sobre mi proceso de auto-producción. Ahí me di cuenta de que para algunos PEDALÓ es un ejemplo de que con muy poco es posible hacer un largometraje. Pero creo esa afirmación es una hoja de doble filo. Se puede aunque no sé si se debe. Es cierto que la hice con muy poco presupuesto, pero en condiciones bastante precarias. A través de una campaña crowdfunding conseguí lo justísimo para cubrir algunos gastos del rodaje. Después, como no tenía dinero, tuve que emplear 4 años de mi tiempo libre para terminarla. Y eso, desde un punto de vista de producción capitalista, sólo se entiende si eres un becario de ti mismo. ¿O tal vez lo que quería que fuera mi profesión resultaba ser un hobby muy caro? Hacer una película con pocos recursos tiene su mérito pero no sé hasta qué punto se debe celebrar. Creo que algo parecido le sucederá a muchos creadores en el sector cultural. Me pregunto si al final mi modus operandi no habrá alimentado más aún el fuego de la precariedad. Pero hablando de fuego, es momento de quemar las asperezas personales en la hoguera de San Juan. "Ona barrura, txarra kanpora" como dice nuestro querido chamán en una escena que se desarrolla precisamente en San Juan de Gaztelugatxe. Y es que al final la cosa tuvo su recompensa. No sólo tuvimos la suerte de que la película fuese seleccionada en el Zinemaldia de Donostia sino que además nos dieron el Premio Irizar al Cine Vasco. A los tres protagonistas y a mí nos costaba creer que la gente conectara con un universo que nos parecía tan nuestro. Eso me pareció una maravilla.

La noche del estreno, después de la proyección, alguien del público nos preguntó si lo volveríamos a hacer. Hubo un silencio extraño. Pienso que tanto la hazaña alucinada de los tres locos del pedaló como mi aventura fílmica paralela fueron fruto de esa deliciosa pero irreplicable insensatez de la juventud. Y creo que si lo conseguimos fue porque no sabíamos que era imposible.

Juan Palacios

